

EUSKARAZ 2018 GAZTE LITERATUR LEHIAKETA

SARIA

IPUINAK

1. SARIA: **Aitona ingelesa**
Iñaki Iturain

2. SARIA: **Iker**
Mikel Iruretagoiena

3. SARIA: **Gab(onak)**
Joxe Mari Unanue

Accesita: **Baserria**
Ane Etxabe Usandizaga

Accesita: **Katebegia**
Alazne Arruti

OLERKIAK/BERTSOAK

1. SARIA: **Marearen kontra igerian**
Mikel Iruretagoiena

2. SARIA: **Badira**
Iona Rekarte

3. SARIA: **Argia**
Rosi Lazkano

Accesita: **Aurten bai!**
Garazi Urretabizkaia

Accesita: **Mundua zapi bat balitz**
Alazne Arruti

Aitona ingelesa

Iñaki Iturain

—Ingelesa?

—Bai, ingelesa!

Sebastianek ez dit sinesten. Ez da harritzekoa, nik neuk ere ez dut-eta sinesten. Baina ezin dut burutik kendu. Lehengoan Bentan izan nintzen, baserrian. Lehen ere askotan izan naiz ni han. Gustura joaten naiz. Gizon atsegina da Luis, base-
rriko nagusia, jatorra. Istorio pila bat entzun dut haren ahotik. Uste dut 88 urte betetzekoa dela aurtan. Han jaioa da, bertan igaro du bizitza osoa eta inguru hartako kontu guztiak dakizki. Horregatik sinetsi nion lehengoan istorio hori kontatu zidanean. Baina ezin da egia izan. Gure kastako guztiak ingeles baten ondorengoak omen gara, harengandik omen gatoz.

Amari ere galdetu diot geroztik, baina hark ez omen daki ezer, berak ez duela horrelakorik sekula entzun.

—Nola izango gara ba gu ingelesak?

—Lusek ez zidan esan gu ingelesak garenik. Esan zidan oso aspaldi etorritako ingeles baten ondorengoak garela, hura dugula aspaldiko arbasoa.

—Errazegi hitz egiten du horrek. Berak nola daki ba hori, ez baldin bazuen ezagutu?

—Esan zidan aitonak kontatu ziola, txikia zela, eta aitonak bere aitonari entzun ziola txikitan.

—Jesus, Jesus... Aspaldiko kontuak dira horiek, gero!

Laurak istorio bitxiak entzun izan dizkio Bentako Luisi; baina ingelesarena, orain arte sekula ez; eta Laurak uste du ipuin hutsa dela, Luisen asmatua. Hala ere, ezin du gaia burutik kendu. Larunbatean berriro harengana joatekoa da. Ea berriz berdin kontatzen dion ingelesarena, edo aurrekoan bururatu zitzaion asmakizun hutsa den!

Lusek esan zion Donostian tropa ingelesak sartu eta hiriari su eman ziotenean, soldadu haietako batek ihes egin eta honantz etorri zela. Harrapatuz gero akabatu egingo zutela eta nonbaiten ezkutatu behar eta Bentara iritsi zela. Han hilabete batzuk

pasatu eta gero, ingelesek Donostiatik alde egin eta pixka bat lasaitu zenean, Bentatik atera eta beste baserri bat altxatu eta han jarri zela bizitzen.

Laurak Brit du abizena. Badaki arraro samarra dela. Inguruko herrietan ez dago abizen horrekin inor, eta kanpoan ibili denean ere ez du topatu inor Brit abizenekorik. Askok esan diote ez dela euskalduna. Laurak beti erantzuten die berak ezagutzen dituen Brit guztiak euskaldunak direla.

Atzo unibertsitateko liburutegira jo zuen. Han 1813an ingelesek Donostia erre zutenekoari buruzko liburuak gainbegiratu zituen. Beldurtuta gelditu zen. Ikaratuta. Lehendik ere bazuen historiako pasarte horren berri. Bazekien urtero oroitzen dutela abuztuko azken eguneko arratsean 'Abuztuaren 31' kalean orain bi mende ingelesek kale hartako etxeetan egindako txikizio izugarri hura, baina inoiz ez zuen hori dena liburu batean irakurri: hil, bortxatu, lapurtu, su eman...

Burutazio batek atera zuen irakurketak ekarri zion aztoramenetik. Ingeles hark ez zuen hilketa eta bortxaketa haietan parte hartu nahi izan eta horregatik joan zen handik ihesi. Harro sentitu zen gizon harengatik. Pentsatzen hasi zen beharbada baietz, aitonaren aitonaren aitona zuela gizon hura. *Zergatik ez? Luis ez da gezurrak esatekoa.*

Berriro Sebastianekin elkartu zenean, bestelako bertsioa azaldu zion Laurak XIX. mendeko gizon harena, samurragoa, gozoagoa. Sebastian ere sines-berago agertu zen.

—Hara, Brit horrek badu, bai, ingeles kutsua: Wrigth abizen ingelesa da eta, egia esan, ingelesez ez dakien euskaldun batek hitz hori idatzita ikusita, kontsonante batzuk kenduta, Brit irakurriko luke.

—Aiba, arrazoi duzu, ez zitzaidan sekula burutik pasa ere egin.

Larunbatean elkarrekin joan ziren Bentara bi adiskide minak. Laurak nahi zuen Sebastianek ere entzutea Luisen istorioa, haren ahotik.

Bentan, eguraldiaz-eta hitz batzuk egin ondoren, Laurak zuzenean heldu zion gaiari:

–Luis, kontaguzu nola iritsi zen ingeles hura zuen baserrira, Donostiatik ihes eginda?

Erne entzun zioten biek. Baserritarrek berdin-berdin azaldu zizkien ingeles harenak, aurreko aldian Laurari bezalaxe.

Etxera bueltako bidea berriketan egin zuten bi gazteek.

–Luis ez da gezurretan ari. Horrelaxe kontatu zidan aurrekoan ere. Egia da dena.

–Laura, hau da hau, marka! Zu ingelesa zara orduan! Lagun ingelesa dut! –hasi zaio Sebastian txantxa doinu nabarmenez.

–Laura, gaur egun erraz samarra da zuhaitz genealogikoa osatzea, historian atzera egitea arbasoen bila, eta 200 urte ez dira horrenbeste. Saiatuz gero, lortuko duzu ingeles harengana iristea, baldin eta zuen familia, Luisek esanda bezala, harengandik badator. Eta hala ematen du.

Bazkalondoren zuzenean liburutegira jota, berriro eskatu dio Laurak hango neskari 1813ko Donostiako historia kontatzen duten liburuetatik gehien gustatu zitzaiona, Donostiako historialari baten, nobela moduko bat. Gaurkoan maileguan hartu eta etxera eraman du. Afaldu ondoren logelan itxi da liburuarekin, eta ohe ondoko mahaitxoaren gaineko flexoaren argitan, irakurtzen hasi da:

(...) *Abuztuaren 31n, Aieteko muinotik jaurtitako bonba batek bretxa ireki du Donostia inguratzen duen harresian. Soldadu ingelesak sartzen hasi dira, trumilka. Soldadu frantsesak ihesean doaz, arrapaladan. Bonbak lurrean larri zaurituta ihes egin ezinik utzi dituenak baionetaz akabatu dituzte ingelesek, banan-banan, arma zorrotza bularrean barruraino sartuta. Aurrean buru daramaten kapitainak aginduta, korrika, soldadu ingelesek eliza nagusia dagoen aldera jo dute. Frantsesak aldapan gora doaz arrapaladan, izututa ihesi, Urgull mendiko goiko gaztelurantz. Han babestu dira. Gazteluko dorre altueneko mastatik frantsesen bandera hego-haizearen menean dabil, kulunkan...*

Laurak sentsazio handiak izan ditu gaur, eta nekatuta dago. Luisek ingelesaren istorioa berdin-berdin kontatu izanak bide bat zabaldutako iraganeko tunelean murgiltzeko. Sebastian prest du familiaren jatorria ikertzeko, bidea elkarrekin urratzeko... Lokartzen hasita dago, ahoa zabaltzen... Lo geratu da eta ametsak harrapatu du:

Soldadu ingeles gazte bat, bretxan barrena, harresia gainditu eta hilketa izugarri haiek ikusita, izutu egin da, aurrera egin ezinik geratu da. Emakume baten oihuak entzun ditu. Bere konpainiako bi soldadu ikusi ditu neska gazte bati heldu eta soto batean sartzen. Badaki, lehendik ere horrelakoak behin baino gehiagotan ikusita, zer espero duen neska hark, gizon haiek han ezkutatuta. Zalantza izan du zer egin. Barrutik indar batek soto hartara eraman du. Sartu eta fusila soldaduei zuzenduta.

–Utzi bakean neska!

Haietako bat fusila hartzen saiatu da. Soldadu gazteak bere burua defendituz, tiro egin dio. Gero, bigarren soldaduari arma kendu eta lotu egin du, eta neska askatu. Borrokan kapela galdu du. Neskarekin kalera atera da. Neskak ingelesez ez diola ulertzen konturatuta, imintzio eta keinu bidez adierazi dio handik aldegiteko, nonbaiten ezkutatzeko. Neska gaztea korrika abiatu da, baina momentu batez gelditu eta, atzera begiratuta, agur-keinua egin dio soldadu gazteari eskuekin. Mutilak beldurra eta esker ona batzen dituen irribarrea sumatu du neskaren ezpainenetan.

Neskak alde eginda, soldadua bakarrik geratu da. Etxeak sutan ikusi ditu, jendea herio batean, teilatuen gainean ihes egin nahian. Inguruan ez du inor. Mendira begiratu du; eta goraka, frantsesak ikusi ditu, ihesean arineketan, eta haien atzetik ingelesak segika. Tontorrean frantsesen bandera urdin-txurigorria ikusi du. Oraintxe konturatu da: ingelesek daramaten banderak ere kolore berberak ditu. Gazteluko mastatik zintzilik ikusi duen trapu handi hura bezain arrotza sentitu du soldadu ingelesek gaztelurantz harro-harro daramaten bandera ere.

Momentu batzuk lehenago harresiko bretxan barrurantz egindako pausoak orain atzeraka eman ditu. Kanpoan da. Noraezean geratu da, zalantzan. Ez daki nora jo. Badaki ezkerraldean, ibaiaren ondoan, ingeles kanpamentua dagoela. Berehala beste konpainia bateko soldaduak ikusi ditu korrika, beregana. Itsaso aldera jo du, huraxe du ihesbide bakarra. Lasterka abiatu da. Soldaduak, bere ondotik igarota, bretxan barrena harresiaren barruan sartu dira. Ez zetozen berarengana, baina susto handia hartu du.

Hondartzara iritsi da. Ederra da. Begirada ortzimugan jarrita, sakon hartu du arnasa. Begiak itxi

ditu, kresala hobeto usaintzeko. Olatuek haitzen kontra jotzean sortutako danbatekoa entzun du. Gogoa itsasoaren bestaldean dagoen bere jaioterrian duela, fusila arroka artera bota du, eta kasaka gorria eta gerritik gorako gainerako arropak erantzi. Eskua altxatuta, agur egin du berak ere: "See you one day!" Berriz ikusi arte!

Itsasoan murgildu da, urertzeko olatutxoengainetik. Uraren epela sentitu du soinean. Donostiako kaleak ez bezala, itsasoa bare dago. Igerian, segi eta segi, nekatzen hasita dago. Badiaren beste aldeko mendia urruti ikusten du. Justu, badiaren erdi-erdian irla bat dago. Han atsedean hartzea erabaki du. Lehorreratuta, badaezpada, hango hondartza txikitik metro gutxitara hasten den basoan barneratu da. Arbola artean, lehenengo soilgunea topatu duenean, etzan egin da belar freskoaren gainean. Gustura dago, eguzkiaren epeletan. Erdi lo dagoela, berriketan datozen bi gizonezkoren hitzek esnatu dute. Frantsesez ari dira. Zorionez, ez dute ikusi. Haiek urruntzen ikusi dituenen, uhartearen beste aldera jo du. Basotik aterata, itsasora jaisten diren haitzak topatu ditu aurrean. Handik behera, gertuago izango du beste aldeko hondartza, sarraski-tokitik urruntzeko bidea. Ez du bitan pentsatu, itsasoaren gainean dagoen arrokkara iritsita, uretan murgildu da. Minutu batzuetan bestaldeko hondarretan lehorreratu da.

Goizean esnatu denean, liburuia etxeko zapatilen ondoan ikusi du Laurak, ohe gainetik erorita. Berehala konturatu da: liburuari eta ametsari esker, orain badaki bere arbaso hark ihes egin ziola gerrari. Badaki nola lortu zuen Donostiako triskantza hartatik urrundu eta Ondarretako hondartzara iristea. Jabetu da handik aurrerakoak berak osatu beharko dituela. Eta bide horretan abiatzea erabaki du. Larunbata da, unibertsitatera joan beharrik ez eta ametsak emandakoarekin gustura dagoenez, iraganean ibilaldi atsegina egiten ari denez, ohetik bidaiaitzen segitzea erabaki du, jaiki gabe. Erdi lo, erdi esna...

Gazte ingelesa beldurtuta dago Ondarretako hondartzan lehorreratu denean. Ezker-eskuin begira doa, erne, nonbaitetik soldaduren bat aterako ote zaion. Hartaraz gero, denek etsai izango dute gizajo hura, frantsesek bezala ingelesek. Izena emango diot iheslariari: Nire aitonaren aitonaren aitonak Thom zuen izena, Thom Wright.

Thom gazteak kea ikusi du hondartza bukaeran dagoen kanpamentu militarretik zerura, soldaduen lonazko dendak sumatu ditu kea ateratzen den gunean. Ezin da handik pasatu. Ihesbide bakarra du, aurrez aurre daukan malkar tentean gora egitea, mendira igotzea.

Bidea zuhaitz artean doa goraka, sigi-saga, estu, itsasoaren gainean. Halako batean, arnasestuka, zabalgunek batera iritsi da. Hantxe geratu da. Behatoki ederra du aurrean. Behean hondartza ikusi du, eta militarren kanpamentua. Itsasoan, lehen planoan, atsedena eman dion uhartea, dotore. Irlaren atzean, Donostiako borroka-tokia, erdi eraitsitako harresia, haren barruan etxeak sutan, kea nonahitik, eta goian gaztelua. Lehen frantsesen bandera zegoen mastatik orain ingelesena ageri da. Igeldoko mendiko behatokian pozik sentitu da, bere buruaz harro. Ez du banderarik nahi. Trapua bai, behar du, baina ez nongoa den aldarrikatzeko, bere bularraldea janzteko baizik.

Parajeak liluratuta dauka, bere herrikoaren antza du. Hura gogorarazten dio. Berririo begiratu du itsasaldera, ortzi-mugarantz. Etxeaz gogoratu da, etxekoez. Malko bat isuri du, aspaldiko partez. Hura xukatuta, osteria ekin dio bideari, gerratik urruntzen duen xendari. Tipi-ttapa doala, etxe txuri bat ikusi du zelai baten ondoan, baserri bat; haren ondoko zelaian, bi hesolaren arteko sokatik zintzilik, arropa, eguzkitan zabalduta. Bi aldeetara begiratuta, aurrera egin du, baserriraino. Ahotsak entzun ditu etxetik. Leiho baten pean kokatu da, makurtuta. Barruan hizketan ari dira. Orduagatik eta usainagatik bazkaltzen behar dute. Goseak zalantza ekarri dio, sartu edo ez. Zuhurtzia nagusitu zaio goseari. Belarriak erne, konturatu da ez duela hitz bakarra ere ulertzen, eta harritu egin da, berak badakizkietan espainolezko hitz batzuk.

—Baina zer da hau? Non nago ni?

Zaratarik egin gabe, arropa hartzera jo du. Alkandora eta prakak ikusi ditu, eta apretak. Haiek hartuta, basoan ezkutatu da. Soinean dituen galtza militar bustiak erantzi eta baserritarrarenak jantzi ditu. Zabal samarrak geratzen zaizkio. Etxalde hartako gizonak handia behar du horratik. Baina eroso dago, eta lasai. Alkandora txuria soinean duela, libre sentitu da.

Zuhaitz baten ondoan lurtean zulotxo bat eginda, erantzitako prakak lurperatzen hasita, akordatu da:

galtzetako patrika batean urre koloreko botoia topatu du, kasaka gorriaren sorbaldan zintzilik zuena, Donostiako soto hartako borrokaldian erdi etenda zuelako poltsikoratua. Erabakia hartu du: 'Horixe bakarrik gordeko dut nire uniformetik. Horixe izango dut nire orain arteko bizimodu militarren azken lekukoa'. Gazteak badaki ez duela gehiago kasaka gorririk jantziko, Donostian isuritako odolaren ikur irudikatzen du uniforme militarra. Soinean jantzita duen alkandora zuriari erreparatu dio. 'Hauxe izango dut bizimodu berriko bandera bakarra'. Eta baserritarrari hartutako galtzen patrikan sartu du botoia, oraingoan mahoizko praka urdinetan, gainerako arropak lurperatuta.

Ohetik jaiki eta aurpegia uretan freskatu dudanean, begiak zabal-zabalik, konturatu naiz: Azken irudiak bizi-bizi ditut, garunean iltzatuta bezala, zeharo errealak balira bezala. Gazte ingelesak, arropekin batera, iragan militarra ere hantxe utzi du lurperatuta, zulo hartan. Gerrari agur esanda, nekazari baten arropa soinean, mendian libre... Sebastiani kontatzeko gogo bizia sentitu dut eta uaxapa jarri diot bihar elkartzeko proposatuz.

Berriz ere liburua hartu dut lurretik. Buruz behera zegoen, azken orrialdean zabaldurik. 1813ko Donostia erre zutenekoa azaltzen duen liburua irudi ederrak ditu, orduko soldaduenak-eta. Bart soldaduen uniformeko arropen erreparatzen ari nintzela hartu ninduen loak. Soldadu anonimo baten irudia ageri da liburuan, uniforme-jantzian. Nire ametsetako soldaduaren bikia ematen du. Horregatik sortu zait soldadua ametsean. Begirada botoietara joan zait, kasaka gorrian goitik behera doan botoi-ilara distiratsura. Begiak hurbildu ditut liburura, gertuagotik ikusteko. Berehala konturatu naiz: *Ingelesak patrikan sartu duen botoiaren igualak dira. Baina, zer demontre? Nik botoi horiek beste nonbait ere ikusi ditut. Non baina?*

Salto batean jaiki eta duxara noa, ea xanpuak buruaz gain, buru barruko ideiak ere garbitzen dizkidan. Botoi borobil horiek, urre kolorekoak... Non arraio ikusi ditut? Ur beroaren azpian egon naiz, inspirazio une baten zain, begiak itxita, ea berriz nire soldadu prestua agertzen zaidan. Alferrik! Baina atera naiz duxatik, toallan bildu-bildu eginda, eta orduantxe hasi naiz oroitzapenak orrazten, ispiluaren aurrean.

Amonaren sukaldean nago, haren aldamenean eserita. Amona josten ari da. Mahai gainean josteko kaxa loreduna dauka, hariz eta jostorratzez betea.

—Kontuz, Laura, horiek txista egiten dute-eta. Hori ez, lastana, jostorratzik ez. Tori botoi hauek jostatzeko, begira ze polittak!

Hantxe dago, koloretako beste hainbaten artean, metalezko botoi borobila.

Amonak, harekin jolasean ikusi nauenean:

—Hori ondo zaindu, botoi berezia da-eta.

—Zergatik berezia, amona?

—Aspaldikoa da. Hori giltza bat da, gure familiarena.

—Zer irekitzen du, ba?

—Iragana, polita, gure familia nondik datorren.

Txikitako elkarrikereta hura gogora ekarrita, amonarekin hitz egiteko grina sortu zait. Urte asko pasatu dira, haren burua ez da lehengoa, eta akaso bere josteko kaxa ere ez da garai batekoa izango. Baina eginahala behintzat egin behar dut. Bai horixe! Jantzi eta gosaldurako, motxilan historia-liburua sartu, eta Sebastianekin elkartzera abiatu naiz. Berehala iritsi gara amonarenera.

—Amona, zuk txikitan erakusten zenidan, ba, urrezko botoi bat, gogoratzen? Gordeta al daukazu?

—Nik? Zer urrezko eta zer gero? Nik hemen ez daukat ezer. Dena baserrian geratu zen.

—Bai, amona, soldadu baten urrezko botoia.

—A, bai, botoi hura, bai. Han egongo da, ganbarako kutxa handi hartan. Han sartuta geratu ziren traste zaharrak. Han bada garai bateko traste zahar franko. Paperak ere baziren han, inork entenditzen ez zituenak.

—Paperak?

—Bai. Tomasek erakutsi zizkidan behin. Uste dut karta bat zela. Ez dakit nik zer hizkuntzatan zegoen, baina inork ez zuen entenditzen. Baserrian egondako kanpotar batek idatzia omen zen, sekula bidali gabe geratu zena.

Amonari bi musu emateko ere ia astirik hartu gabe, haren etxetik abiatu da Laura. Espero baino gehiago atera dut bisitatik. Ordubetera elkarrekin gara Sebastian eta biok. Zehaztasun osoz kontatu diot ametsak, amets osteak eta amonak esandakoa.

—Eta, orain? —Sebastianek.

—Ez dakit. Badakiguna da Luisek kontatu zidana: Bentan agertu zela eta han hilabete batzuk eman

zituela, eta gero, handik aterata, bere baserria jaso zuela.

Mutilak ere ekarpena egin nahi izan dio neskaren istorioari:

—Badakizu zer esan didan aitonak? Garai batean, beheko errepidea egin aurretik, goitik zela bidea. Donostiatik abiatuta, Igeldon barrena, Bentatik pasatzen ziren Azpeitira zihoazen gurdiak. Zalgurdi haiek bertan geratzen ziren, zaldiek atsedean hartzeko. Gero esan dit soldadu ingeles hura Bentara iritsi bazen, seguru lanean jarri zutela, han izango zela lana: animaliei jatena ematen, bidaiariak zerbitzatzen...

Laurak barre egin du, pozik... soldaduaren historia borobiltzen ari da, Sebastianen laguntzari esker.

—Seguru baietz! Gainera, Bentakoei ondo etorriko zitzaien mutilak ingelesez jakitea.

—Horixe, eta jendeak nongoa zen galdetuta berak hala esango zuen “I am British”. Hortik ere etor daiteke Brit deitzea, British laburtuta. Auskalo!

Sebastianek gehiago inplikatzeko gogoia agertu du.

—Izan al zara aspaldi zuen baserrian?

—Han orain ez dago inor, baserrian bizi izandako gure familiako azkenak aspaldi jaitsi ziren kalera. Gure aitona izan zen azkena, Tomas Brit. Baina joan egin behar dugu, bai, ea zerbait topatzen dugun. Amonari eskatuko diot hango giltza.

Baserrira elkarrekin joatekotan geratu dira Laura eta Sebastian. Biharamunean, mutila proposamen batekin agertu da hitzordura.

—Atzo herriko kanposantuan izan nintzen. Britarren hilobiko harlauzako izen guztiak irakurri nituen. Han agertzen den zaharrena 1918an jaioa da. Haren aurrekoek ere nonbaiten behar dute, ba. Badakit garai batean elizan bertan lurperatzen zituztela. Baina badakizu zer? Donostian bada hilerri bat ingelesena deitzen diotena. Hara joan behar dugu, ‘Ingelesen hilerria’.

—Zertara joan behar dugu hara?

—Aitonak esan zidan atzo, 1813ko abuztuaren 31n Donostiako etxeak erretzen eta jendea akabatzen ibilitako soldadu haien peskizan bagabiltza, joateko hilerri horretara. Goazen lehenbizi hara, baserrira joan aurretik. Nire autoan egingo dugu bidea!

Laurak sastada mingarria sentitu du soldaduen aipamena hiriari su eman eta jendea hiltzearekin lotuta entzun duenean; baina onartu egin du Sebastianen proposamena.

Itsaso aurrean dagoen Paseo Berrira eramanez autoa mutilak. Han autoa aparkatuta, oinez abiatu dira biak elkarren ondoan, Urgull mendian gora, hilerriaren bila. Mutila konturatuta dago neska bi mende lehenagoko historiaren hausnarrean doala.

Ttipi-ttapa, agudo iritsi dira. Hantxe dago, Urgull mendiaren magalean, basoaren erdian, zuhaitzez inguratuta, itsasoaren gainean, bake osoan.

—Beren nazioa dute aurrez aurre, Ingalaterra, itsasoaren bestaldean —otu zaio mutilari.

—Bai, eta bizkar ematen diote Donostiari, txikitu zuten hiriari. Mendiak bereizten ditu —erantsi du Laurak.

Hilobi handi bat ikusi dute, eta hara bertaratu dira. Zutikako harrian izen bat dago: Thomas Rose, 41 urteko teniente irlandarra. 1813ko irailaren 1a.

Eta izenaren azpian inskripzio bat. Mutilak irakurtzeari ekin dio, ahoz gora:

Gauerdian etxe batean babestu gara. Frantsesak gazteluan gotortuta daude, zain, gure soldaduen eraso noiz iritsiko. Fletcher teniente koronela bretxan hil dute eta horrek etsaiarekiko gorrotoa areagotu du. Biharamunera atzeratu ditugu bonbardaketak; zoritxarrez, donostiarrak izan dira mendekuaren biktima.

Soldaduak odolaren usainarekin pizti bihurtu dira. Portugalدارrak lapurreta bizian hasi dira etxez etxe; britainiar granadari-talde bat, upeltegi guztiak hustu ondoren, emakumeak bortxatzen hasi da. Ardo eta pattar kupelak alde batetik bestera doaz, eta kaleak hondakinez beteta daude: altzariak, izara zikinak, arropak... Guduak eromena ekarri du, kontrolik gabeko orgia, erabateko kaosa.

Soldadu ingelesek su eman diote Kale Nagusiko etxe bati; sugarrak aldameneko eraikinetara hedatzen hasi dira. Bizilagunak saiatu dira itzaltzen, baina alferrik. Soldaduak nekatuta daude, eta sotoetako kuarteletara itzuli dira deskantsatzera. Nik ere lo egingo dut.

Laurak kostata eutsi dio zutik, Sebastianen ahotik entzun duenak eragin dion zirrarak jota.

Han ondoan dagoen harrizko bankuan eseri behar izan du. Minutu batzuk pasatu dira, bere onera etorri arte. Dena bertan behera utzi eta bere arbasoa izan litekeen soldaduaren istorioa ahazteko gogoa sentitu du Laurak, etxera erretiratzekoa. Sebastianek konbentzitu du baserrira joateko.

—Goazen baserrira, ea han zer topatzen dugun!

Autoan baserrira iritsi eta han, ganbarara igota, kutxa handi zahar bat topatu dute. Han daude jasota amonaren gauzak, eta aitonarenak, aittitte Tomasenak.

Oraintxe konturatu naiz: Tomas Brit zen gure aitona, horregatik eman nion ametsetan Thom izena soldadu ingelesari: Thom Wright. Hara, hara! Kutxa batean, botoiarekin batera gutun zahar maiztu bat ikusi dut, kolore horizta duena. Bat ez, bi daude, erdi itsatsita. Lehenengoa kontuz eta poliki ireki dut. Eskerrak, hitzak oraindik irakurtzeko moduan daude! Ingelese, jakina. Ahots gora irakurtzen hasi naiz:

My dear brother Joe:

I'm writing to you from San Sebastian...

Gutuneko hitzak ingelesetik euskarara ekartzen hasi naiz.

Joe, ene anai maitea:

Zer moduz gara, aspaldiko hori? Eta ama? Ondo al dago? Denbora asko pasatu da azkenekoz idatzi nizuenetik. Ez dakizu zenbateko gogoa daukadan zuek ikusteko.

Donostiatik ari naiz idazten. Urrutitik. Badira hiru urte etxetik atera nintzenetik. Portugalekoa kontatu nizun. Han jakin nuen lehenengoz zer den gerra. Hala ere, Portugalen ondo ibili ginen. Borrokaldi batzuk izan genituen, baina hura ez zen ezer izan, geroztik ezagutu ditudanen aldean. Handik Espainian sartu ginen. Jeneralak esan zigun San Sebastianera joan behar genuela, Frantziarekin muga egiten duen hiria askatzera, frantsesek hartua zutela eta hura berreskuratzen.

Ez nuen sekula pentsatuko horrelako toki eder bat nolako infernua bihurtu daitekeen. Geuk egin genuen hori, tropa ingelesek. Bertakoek Donostia esaten diote hiriari. Harresituta zegoen. Haren kontra aritu ginen egunetan, kanoiekin bonbak jaurtitzen. Halako batean, lortu genuen zuloa egitea harresian. Handik sartu ginen. Geroztikakoak ez dauka izenik. Hura basakeria! Etxeei su eman, gizonak akabatu,

emakumeak bortxatu...! Gogora ekartze hutsak oraindik ere izua ematen dit.

Ezin nuen hura onartu. Barrenak ez zidan uzten. Ihes egitea lortu nuen, mendira jota. Egun batzuetan, basoan ezkutatuta ibili nintzen. Jakin nuenean Donostia aldean borrokaldiak bukatu zirela, zalantza izan nuen etxe aldera abiatuko ote nintzen. Baina urrutiegi nengoen bakar-bakarrrik horrelako bide luzeari aurre egiteko. Frantzia osoa zeharkatu behar nuen, eta frantziarrak ez zeuden oso pozik ingelesekin. Ez nintzen onik aterako eta pixka baterako hemen geratzea erabaki nuen. Etxe batera jo nuen, Benta baserrira. Han hartu ninduten lanerako. Zalgurdia gelditzen zen etxalde hartan, egunean bi aldiz. Haienezako lanean aritu nintzen. Lan ederra izan zen niretzat. Jende asko ezagutu nuen. Baserrikoak ere oso jende zintzoa dira.

Hiru urte pasatu nituen han. Oso urte beteak izan ziren. Baserrian denbora librean nuenean, Donostiara jaisten nintzen, hango etxeak berreraikitzen laguntzera. Nire armadako soldaduek bota zutena, ingelesek suntsitu zutena, altxatzera. Ondo etorri zitzaidan, gainera. Han ikasi nuen etxeak eraikitzen.

Etxeko alabarekin ezkondu nintzen, Margaritarekin. Haren aitak lur puska bat eman zigun, Bentatik gertu, han baserria jasotzeko. Urte batzuk gogorrak joan ziren. Lana besterik ez. Umeak jaiotzen hasi ziren. Zortzi eman zizkigun Jaungoikoak. Urte batzuetan bizirik izan nuen egunen batean etxera joateko ametsa, bisitan besterik ez bazen ere. Gero etsi egin nuen. Ezinezkoa zen.

—Izugarria. Eta nolatan dago ba gutuna hemen?

—Zerbaitengatik ez zuen gutuna bidali. Hemen gelditu zen. Ematen du, gainera, karta bukatu gabe dagoela.

Neskak bigarren gutuna irakurtzeari ekin dio:

Joe, ene anai maitea:

Badakit seguru, zu bizi baldin bazara, ni aspaldi hila jotzen nauzula. Baina oraindik bizirik nago. Ez da izango luzerako baina. Laurogei urteko agure zahar bat naiz. Orain dela urte asko gutuna idatzi nizun, baina ez nuen inoiz bideratu. Beldurra nuen gutuna ingelesten eskuetan eroriz gero, nire bila etorriko ote ziren.

Orain, hilaurretik, nahi dut zuek jakin dezazuen bizirik naizen artean ez zaituztedala ahaztuko. Gogoan zaituztet denak, aita, ama, zu... baita

herria ere. Baina orain hemen dut etxea; hemen, familia. Garai batean, soldadu ingelesek Donostian egindako izugarrikeria haiek denak nireak ez zirela barneratzeko, nire buruari esaten nion: hi irlandarra haiz, ez haiz ingelesa! Orain ez dit inporta nongoa naizen. Hemen nago, nire seme-alaben aita naiz, eta nire biloben aitona. Hauxe dut aberri bakarra, gure etxea.

Abizena ere galdu dut, hemengoek aldatu didate, euskaldunek. Euskaldunei zaila egiten zaie Wright guk bezala esatea eta Brit deitzen didate. Abizena

laburtu egin didate eta izena, berriz, luzatu. Hemen Tomas naiz, aitona Tomas.

Etorri bisitan. Wright-tarrak ongi etorriak izango zarete hemen, ni bizi naizen artean behintzat. Etorri. Hemen jende ona topatuko duzue.

I love you.

Thom Wright

In San Sebastian, 31st August 1873

Sebastiani begiratu, gutuneko azken hiru hitzak errepikatu ditut, pozik eta harro, arbaso irlandarrarekin berradiskidetuta.

Iker

Mikel Iruretagoiena

Etxeko atea danbateko batez itxi ondoren, eskailerak binaka saltatuz kalerantz abiatu zen Iker. Gurasoekin izandako sesioa sekulakoa izan zen eta haserre bizian atera zen etxetik. Pausu azkarrez, koadrilak ohiko elkargune zuen tabernarantz zuzendu zituen pausoak, minutu batzuk lehenago izan zuen liskarra burutik kendu ezinik. Hitz gordinak izan ziren bere gurasoei zuzendu zizkienak, baina ongi mereziak zituzten, zer kristo! Bakean bizitzen ez zioten uzten, ez zioten ulertzen eta batez ere nazka-nazka eginda zegoen aspaldian bereganako zuten jarrerarekin.

Tabernara iritsi zenean zain zituen lagunak, haien artean Haritz, bere lagunik onena. Garagardo bat zuen Haritzek mahai gainean eta kanuto bat egiten ari zen trebetasun handiz.

—Zer gertatzen zaik, motel? Hori duk aurpegia! —galdetu zion Haritzek sartu orduko.

—Guraso putakume horiek ez zidatek bakean bizitzen uzten —erantzun zion Ikerrek haserre.

—Berririo sesioa eduki al duk etxean?

—Sekulakoa! Baina lasai, mutilok, gauzak garbi utzi zizkieat oraingoan. Zer uste dute horiek, nirekin nahi dutena egin dezaketela? —bota zuen Ikerrek lagunaren aurrean harrotuta.

Taldea barrez lehertu zen erantzunarekin. Ondo ezagutzen zuten laguna eta bazekiten zein jenio bizia zuen haserretzen zenean.

—Tira motel, lasaitu hadi eta emaiok kalada bat —esan zion Haritzek barreak baretu zirenean, amaitu berri zuen porroa mahai gainetik luzatuz.

Goizeko ordu txikiak handi bihurtu ziren gau hartan ere Iker etxera iritsi zenerako. Lagunekin parranda itzela egin zuen eta bezperan gurasoekin

izandako liskarra oroitzapen lauso bat besterik ez zen ordurako bere buruan. Parranda bat beti izan da anestesia bikaina arazoez ahazteko eta gau hartan bere funtzioa ongi bete zuen.

Giltza poltsikotik atera eta ateko sarraillaren zuloan sartzen saiatu zen. Atea ez zen ireki. Hasiera batean alkoholaren eraginez ezinean ote zebilen pentsatu zuen, baina ezkaratzeko argia pizterakoan konturatu zen arazoa beste bat zela. Barrutik krisketa emanda zegoen eta alferrikakoa zen giltzarekin jardutea.

Burua jiratu eta maleta handi bat ikusi zuen ezkaratzean, atearen ondoan. Gertatzen ari zenaz ohartu zen bat-batean eta suak hartu zuen. Txirrina behin eta berriz jotzen hasi zen eta erantzunik lortzen ez zuela ikusita, atea ukabilez astintzen.

—Ireki atea! —oihukatu zuen bizilagun guztiek entzuteko moduan.

Erantzunik ez zen izan barrutik. Etxe barruan ez zen txintik ere entzuten, baina sortutako zaratarekin inguruko bizilagunak esnatzen hasi ziren. Inguruko etxebizitzetan mugimenduak sumatu zituen, sarraila bat edo beste zabaltzen eta lehen bizilagun asaldatuak ezkaratzera irten aurretik handik hanka egitea erabaki zuen.

—Zoazte denok popatik hartzera! —oihukatu zuen maletari esku batez heltzen ziolarik.

Haritzek txanpon batzuk eman zizkion barrako zerbitzariari eta prestatu berri zizkion bi kafeak kontu handiz hartuz, tabernako mahaietako batera zuzendu zen. Iker mahaiaren beste aldean eserita zegoen eta bere alboan maleta handi bat ikus zitekeen. Esku artean zuen giltza sortari begira zegoen, pentsakor.

—Orduan zer esaten duk, etxetik bota hautela? —galdetu zion Haritzek kafeak astiro mahai gainean jartzen zituen bitartean.

–Etxera itzuli naizenean ez zidatek aterik ireki nahi izan –erantzun zion Ikerrek–. Horrekin dena esanda zegok.

–Kristorena haiz! Oraingoan bai benetan haserretu dituala gurasoak! –esan zion Haritzek koilaratxoarekin azukrea nahastuz.

–Ez zaidak batere inporta –erantzun zion Ikerrek, burua altxatuz–. Hire ganbaran primeran egongo nauk. Mila esker berriro ere han geratzen uzteagatik. Lagun ona haiz.

–Hi ere lagun ona haiz, Iker –esan zion Haritzek–. Tira, har ezak kafe hori eta ganbararaino lagunduko diat. Atsedeen pixka bat behar duk.

Lo pixka bat egiteak on egin zion Ikerri. Esnatu zenean segundo batzuk behar izan zituen non zegoen kokatzeko; baina, bere egoera berriaz jabetu orduko, lasaitasun puntu bat sentitu zuen gurasoen marmarrak entzun behar ez izateagatik. Lurrean botatako koltxoitik jaiki zen eta maleta barruan arropa batzuk bilatzeari ekin zion. Minutu batzuk beranduago, arropa garbiak jantzita, bere bizitza berriari aurre egiteko prest sentitu zen.

Ganbarako atea itxi eta kalera abiatu zen. Eskuak poltsikoan zituela, ia pentsatu ere egin gabe, bere oinek leku ezagunera zeramaten. Iritsi zenean, lokala zikin eta ilun aurkitu zuen beti bezala. Txoko batean, betiko aulkian eserita, Goiko Bordako mutilzaharra ikusi zuen, sakelako telefonoari begira. Arnasa sakonki hartu ondoren, Ikerrek berarengana hurbiltzeko behar zuen adore guztia bildu zuen.

–Aupa! –ausartu zen esatera–. Material pixka baten beharrean nagok.

–Baina zer ari haiz esaten, txotxolo hori! –erantzun zion Goiko Bordako mutilzaharrak haserre–. Oraindik azken aldian saldu niana ez didak ordaindu eta!

–Tira, bazekiat –erantzun zion Ikerrek listua tragatuz–, baina lasai egon hadi, biak ordainduko dizkiat eta. Orain arte beti hala egin izan diat.

–Horrek ez dik ezer konpontzen! Negozio honetan arauak neuk jartzen dizkiat eta hik ez dituk bete nahi! Dirurik ekarri al duk? –galdetu zion begietara begira.

–Ez, oraindik ez zeukaat, baina...

Ez zuen esaldia bukatzeko astirik izan. Mutilzaharra aulkitik altxa eta mehatxuka hasi zitzaion taberna guztiak entzuteko moduan.

–Alde egin ezak nire bistatik, ume mukitsu hori! Ez haut ikusi ere egin nahi zor didakena kitatzeko ez bada. Pazientzia bukatzen ari zaidak hire txotxolokeriak entzuten eta badakik ondo zer gertatzen zaien ni baino argiagoak direla uste dutenei!

Ikerrek ukabilak estutu zituen. Adore guztia bat-batean lurrundu egin zitzaion eta gorputzeko odol guztia aurpegian pilatzen ari zitzaiola sentitu zuen. Mutilzaharraren begirada sarkorraren aurrean burua makurtu beste aukerarik ez zuen izan begiak betetzen hasi zitzaizkiola sentitu zuenean eta lehen malkoa isuri aurretik, buelta eman eta kalerantz zuzendu zen bere bizkarrean jada ulergaitzak zitzaizkion hitzak entzuten zituen bitartean.

–Putakumea –esan zuen Ikerrek, baina ez inork entzuteko bezain ozen.

Etxetik pasatzeko ordu ona zen goiz partea. Normalean ordu horretan inor ez zen etxean egoten eta handik pasa beharra zeukan ezinbestean. Bazekien gurasoek non gordetzen zuten eguneroko beharretarako dirua eta, hainbatetan egin bezala, handik *mailegu* bat hartzeko asmoa zeukan.

Sakelatik giltzak atera eta atea irekitzen hasi zen. Kontu handiz saiatu arren, oraingoan giltza zuloan sartu ere ezin izan zuen egin. Berehala konturatu zen sarraila berria zela eta bere giltzak ez zuela inolaz ate hura irekiko. Amorruez beterik, ateari ostikoka hasi zen Iker, nekatu zen arte. Negar egiteko gogoia sentitu zuen. Handik alde egin behar zuen lehenbailehen, norbaitek hala ikusi aurretik. Begiak igurtzi eta kalerantz abiatu zen berriro. Poltsikotik sakelakoa atera zuen Haritz dei bat egiteko asmoz; baina, behin eta berriz ahalegindu arren, ezin izan zuen lortu. Zerbitzua moztu ziotela konturatu zen eta, amorruek ezin kontrolaturik, telefonoa lurrera jaurti zuen bere indar guztiz.

Taberna epel zegoen eta Ikerrek eskertu egin zuen goxotasun hura. Haritz barratik bueltan etorri

zen, eskuetan bi garagardo zituela. Bereari trago bat emanez, bestea lagunaren aurrean jarri zuen. Iker burumakur zegoen, begirada esku artean zituen giltzetan galduta. Garagardoaren ondoan, sakelako telefono bat zegoen, pantaila txiki-txiki eginda.

—Sentitzen diat, txo, baina aitak esan zidak ezin duala ganbaran geratu —esan zion Haritzek.

—Ez dik axola. Ez duk hire errua —esan zion Ikerrek, giltza-sorta Haritzen garagardoaren alboan uzten zuelarik.

—Eta orain zer egin behar duk? —galdetu zion.

—Ez zekiat, baina moldatuko nauk nola edo hala.

Gauaren iluntasunean Goiko Bordaren teilatua antzeman zitekeen ilargiaren argi motelak argituta. Iker tentu handiz zebilen basoaren ertzean, zuhaitzen itzalean babestuz. Bere pausu bakoitzak isiltasuna hausten zuen hosto eroriak zapaltzean eta bazekien isilik ibili behar zuela handik aurrera. Mutilzaharrak zakurtzar bat zuen borda eta bere inguruak zaintzen zituen.

Hesiraino iritsi zenean, hura pasa ahal izateko modu baten bila hasi zen. Iluntasunak bere zentzumenak esnatu zituen eta haize leunaren hotsarekin batera kalamuaren usain gozoa sentitu zuen sudur zuloetatik barrena. Zuhaitz bat ikusi zuen hesitik nahiko gertu. Haren gainera igo eta adar batetik zintzilikatuz barruraino erraz iritsi zitekeela kalkulatu zuen. Usain sarkorrak bere birikak bete zituen eta denborarik galdu gabe zuhaitzaren enborrean gora abiatu zen.

Pentsatu bezala, adar batetik zintzilikatuz nahiko erraz iritsi zen hesiaren beste alderaino. Lurrera jauzi egin orduko, poltsikoan ekarri zuen plastikozko poltsa betetzen hasi zen. Bat-batean hots batek trumoi baten eztandak bezala ikaratu zuen. Belarriak zorroztu eta pausu azkar batzuk sentitu zituen. Ikarak gorputz guztia zeharkatu zion zakurtzarraren irudi izugarria gogora ekarri zuenean. Guztiz izuturik, hesirantz korrika hasi zen. Jadanik ez zuen isilik ibiltzeko ahaleginik egiten eta zakurraren arnasestua bere atzean senti zezakeen.

Hesira iristean konturatu zen behetik adarrera iristea ezinezkoa izango zela. Atzera begiratu eta

zakurraren itzala beragantzt zetorrela ikusi zuen. Ahal zuen moduan hesian gora egin zuen, baina zakurra ordurako ondoan zuen. Istant batean zakurtzarraren barailak bere oinetik oso gertu ixten sentitu zituen.

—Nor dabil hor? —oihu egin zuen norbaitek zakurraren zaunka gero eta ozenagoen artean.

Bitan pentsatu gabe, hesiaren gainetik beste aldera salto egin zuen. Iluntasunean ikusten ez zen lurzoru beltzak bat-batean kolpatu zuen eta bere burua belar gainean mugitu ezinik ikusi zuen. Handik ezingo zuela mugitu pentsatu zuen une batez, baina zakurrak hesiaren kontra amorrutzaunka ziharduen eta gizakiaren orroak gero eta gertuago entzun zitezkeen. Ahal zuen moduan jaiki etaitsu-itsuan basoan behera abiatu zen zambiluka.

—Harrapatzen bahaut, akabatu egingo haut, putakumea!

Goizeko eguzkiaren lehen printzek zerua urdinetik gorri mudatu zuten, terral hotzak itsasoaren azala kizkurtzen zuen bitartean. Ikerren oinetako eta galtza-barrenak, lokatzez zikinduak, zintzilik zeuden moilaren ertzean. Bere alboan hosto eta adaxkaz betetako plastikozko poltsa bat zegoen. Ez zuen gogoratzen zenbat denbora egin zuen basoan behera korrika, zenbat aldiz erori zen lurrera, zenbat aldiz altxatu zen berritara eta nola iritsi zen azkenik moila bazter hartara. Oraindik erotuta zirudien zakur haren zaunkak entzuten zituen barruan eta bere onetik ateratako gizon haren mehatxu ikaragarriak.

Bat-batean oso nekaturik sentitu zen. Gorputz guztia minbera zuen eta arnasa hartzen zuen bakoitzean ziztada bat sentitzen zuen saihets aldean. Zutik jartzen saiatu zenean, begiak malkoz bete zitzaizkion. Orkatila bihurritua zuen eta ematen zuen pauso bakoitzeko gorputza okertzen zuen minak eraginda. Pauso motelez moila bazterretik ibiltzen hasi zenean ezin izan zion negarrari eutsi. Goizeko eguzkiak malko gorri batzuk marraztu zitzaizkion aurpegian eta terral hotzak plastikozko poltsa bat uretara bota zuen.

Gab(onak)

Joxe Mari Unanue

Zerrenda amaiezina

–Kaixo, ama! –agurtu dugu hiru anai-arrebok sukaldean sartu bezain laster.

–Egun on! Oraindik Olentzerori karta idatzi gabe? Mugitu zaitezte, bestela oparirik gabe geratuko zarete!

Irribarre bat egin, eta komunerantz abiatu naiz, Ane eta Lur bikiek zorioneko karta hori idatzi bitartean dutxa bero bat hartzeko. Badira urte batzuk zakudun agureak ezkututzen duen iruzurraz konturatu nintzenetik; baina, gurasoei hitzeman nien bezala, Lur eta Aneri ez diet ezer kontatu. Jada hamabi urte ditut, eta heldua naiz zin egindakoa betetzeko.

Nik Gabonetan ez dut ezer eskatu, izan ere, nire urtebetetzeak pasa berriak direnez, ez dut ezer behar, falta nuen guztia eta gehiago oparitu zidatelako guraso eta aitona-amonen artean. Nire anai-arrebek, ordea, beti behar izaten dute zerbait edo, hobe esanda, hainbat gauza. Zehazki, jostailuak. Jostailuak eta jostailu gehiago. Logela jostailuz bete-bete eginda badute ere, ezin dute beren jostailu gose hori ase. Eta, noski, etxeko txikiak eta gurasoen seme-alaba kuttunak direnez, nahi duten guztia lortzen dute. Horrelaxe ohitu dituzte.

Gau magikoa

Plaza jendez lepo dago, baina izugarritzko hotza egiten du. Zergatik etorri ote naiz jertserik gabe? Oria ibaiari begira geratu naiz: indartsu dator, txokolate kolore zikin batekin. Aitonakesan zidanez, urak mendietatik hartutako lokatzak ematen dio kolore hori.

Hara! Azkenean! Iritsi dira Olentzero eta Mari Domingi. Kostatu zaie, gero! Nolanahi ere, merezi izan du etortzea, antzerki magiko honek urtez urte hunkitzen jarraitzen bainau. Kartak utzi bezain laster Lur eta Ane aitona-amonekin utzi, eta amak lan egiten duen tabernara noa.

Tabernan, jende ugari; telebistan, albistegiak.

Betiko hitzaldi aspergarriak. Erregea dela dioen gizon baten berbaldia, eta inori axola ez zaizkion beste hainbat gauza. Baina, halako batean, arreta jarraz didan irudi bat agertu da.

–Zer ari da esaten, ama? –galdetu diot telebista seinalatuz, deigarri gertatzen zaidan zerbait agertzen den guztietan egin ohi dudana bezala.

–Ezer ere ez, garrantzirik gabeko gauzak –erantzun dit berak, begirada trazu batez lehortzen ari den edalontzitik kendu gabe.

Telebistara begiratu dudanean, ordea, irudi bel-dugarriak ikusi ditut. Gizon batzuk bi herri banatzen dituen hesi bat zeharkatzen saiatzen ari dira, baina behean, polizia itxura duten beste batzuk borra batzuez izugarritzko jipoiak ematen ari zaizkie erortzen direnei. Zein izango ote dira poliziaz jantzitako gizon horiek? Benetako poliziak? Ez, ezinezkoa. Poliziak gaizkileak harrapatzen dituzte, eta ez jendea akabatu. Hori esaten dute, behintzat. Azpian *La valla de Ceuta* jartzen du letra larriz. Ez dakit hori non dagoen, baina inguruagatik urrun dagoela ematen du. Gaitz erdi! Horrek lasaitu egiten nau. Ezbeharren urruntasunak halako segurtasun bat ematen dit. Amak, hari begira nagoela konturatu denean, katez aldatu du, graziaz gabeko txisteak kontatzen ari diren programa batera.

Gabon afaria, urtero legez, amonaren etxean. Haren etxean sartu bezain pronto, beti martxan egoten den irratiaz gain (aitonak eta amonak bakarrik ezagutzen dituzten kantuekin, noski), janari usaina nabaritzen da bazter guztietatik. Haragia dela esango nuke... Ag! Labea, txerrikume bat, untxi bat baino txikiagoa, hankak zabal-zabal eginda dituela, sagar bat ahoan. Tristura eta nazka nahasteak goragalea eragin dit. Zer egin ote du urde txiki horrek horrela amaitu behar izateko? Zertarako akabatu horren izaki txikia? Zergatik erosi ote du aitonak animalia kume bat afaltzeko? Erantzun zentzudunik gabeko galdera asko, gehiegi aukeran.

Egongelan bakarrik nagoela ikusita, izebak

amonarenera eramandako ordenagailua, inork erabiltzen ez duen hori, piztu eta nire dudak tekleatzen hasi naiz, erantzunen bat aurkitu nahian. Halako batean, guk jaten ditugun animalia asko nola hazten eta akabatzen dituzten erakusten duten hainbat argazki eta bideo aurkitu ditut. Oilo-ipurdia jarri zait gorputz osoan, eta urdailak ere oraintxe askaldu dudala gogorarazi dit. Hori nazka, hori! Ordenagailua itzali, aulki batean eseri eta fantasiatzeko filmetan ageri diren mundu liluragarri horietako batean pentsatzen hasi naiz, irudi higu-ingarri horiek ahaztu edo burutik kendu nahian.

Iritsi da afaltzeko ordua. Denak, mahaian eseri bezain laster, jaten hasi dira. Denak, ni izan ezik. Era penagarri horretan hildako txerriaren urdaiazpikoa eta puztutako antzaren foie grasa segituan bukatu dira. Nik, berriz, zainzuriakin bete dut urdaila; lehen ikusitako irudiak buruan, ez naiz gai izan beste ezer jateko. Jarraian, amonak maitasun guztiarekin eta asmo onenarekin prestatutako txerria atera dute labetik. Denak txerrikumea irensten hasi dira, baina ni haren begietara begira geratu naiz. Begirada tristea du, sufrimenduz eta nekez jositako begirada, txakurtegietako txakurrek, edo norbaitek jipoitu eta erren utzitako katuek izaten duten begiradaren modukoa. Begirada mesfidatia. Neure burua ikusi dut begi horien atzean. Nahigabe ikaragarri batek astindu dit gorputza. Goitik behera. Txerritxoak sufritutako guztia sentitzen hasi naiz. Guztiak begira dauzkat.

—Ez al duzu mokadurik jan behar? Proba ezazu, gozo-gozoa dago eta! —esan dit aitonak, harrituta. Aitonak ongi ezagutzen nau, eta segituan ohartzen da zerbait gertatzen zaidanean.

—Utziok! Berarentzat okerrago! Horrela ikasiko dik! —erantzun dio aitak, zakar, geratzen zen azken puska platerean hartu bitartean.

Epe motzeko poztasuna

—Eguberri onnnn! —dio amak

—Jaiki behingoz! Egongela opariz bete-bete eginda dago! Mugitu zaitez! Amonak ez digu oparirik irekitzen uzten zu etortzen zaren arte —oihukatu dit Lurrek.

—Alajaina! Baita opariz beteta ere! —bolatxo gorritz jositako gorostiaren inguruan hainbat kolore eta marrazkidun paperez bildutako kaxa pila bat ageri

dira. Nire oinetakoaren azpian kaxa handi-handi bat, tapan lau zulo dituela. Beti galdetu izan dut zergatik biltzen ote dituzten opari guztiak horrelako paperez, ordu gutxiren barruan, apurtu eta zaborrontzian bukatzen baitute den-denek.

—Bua! Jostailuzko auto honen atzetik nenbilen! Eta zer egongo ote da beste kaxa honetan... Errealeko aurtengo kamiseta! —dio Lurrek—. Eta beste honetan? Liburu ziztrin bat —nazka aurpegia jarritz.

—Eta niri zer ekarri ote dit? Hitz egiten duen panpina bat! Eta harentzako soineko polit-politak! Eta hau? Ile-apaindegiko tresnak! —dio Anek hunkituta.

—Kar kar kar! —hasi da barrez aitona. Gabon hauetan ere Olentzerok ikatza jarri dio. Umorez hartu behar.

Egongela erdia urdina, eta beste erdia arrosa. Erdia *neskentzako* jostailuz eta beste erdia *mutilentzakoez*. Eta erdian, nire oinetakoa, azpian zuloak dituen kutxa duela. Zer egongo ote da? Ireki egin beharko... Hara! Baina, zer da hau? Txakur bat!

Elur maltatar txakur bat da, oraindik txakurkumea. Amak ez dela gehiago haziko dioen arren, zertxobait gehiago hazi beharko duela iruditzen zait. Oso xelebrea da, baina, egia esan, ez nuen horrelako oparirik nahi. Opari hau niretzat baino Ane eta Lurrentzat eginga dago, haiek txakur baten atzetik zebiltzan-eta aspalditik. Beste *jostailu* bat gehiago. Biak txundituta geratu dira. Egia esan, txakurrak pena pixka bat ematen dit, bikiak alde batera eta bestera baitarabilte, trapu-zahar baten moduan. Gaixoari ederra datorkio...

Biharamuna

Elur etorri eta amona joan. Gaur goizean izan dugu gertaeraren berri. Bart gauean utzi omen zion arnasteari. Gabonak alaiak eta zoriontasunez beteak direla badiote ere, niri gero eta tristeagoak iruditzen zaizkit. Eta heriotza, beti bezala, lan eta lan. Ez du oporrik hartzen. Baina pena gehien aitonak ematen dit, berak ere kolpe latza hartu du-eta. Ez dut inoiz hain triste ikusi. Espero dut denborarekin betiko umore eta alaitasuna berreskuratzea. Lehen besarkatzen ninduen moduan besarkatzea, nahiz eta batzuetan indar gehiegirekin estutu.

Hiletak, elizkizunak, beilatokiak, benetan sentitu

gabeko doluminak... Zein baino zein dramatikagoak. Amak dioen bezala, bestela ere burumakur bagaude, hauek oraindik eta gehiago birrintzen digute bihotza. Eta kaletik jendeak, *amona toki hobe batean dago, zeruan ederki egongo da zure amona*. Leku hobe batean? Gugandik urrun? Mesedez! Berarekin hitz egin al duzu, bada? Aitonak esan ohi zigun bezala, tamalgarria da horrelako gauzetan sinetsi behar izatea, heriotza gertu ikusten duzunean hari beldurrik ez izateko. Hauxe zioen aitona: *Iritsiko da heriotzaren ondoren zergertatzen den jakingo dudan eguna, baina orduan, beranduegi izango da zuei kontatzeko. Bitartean, alferrik da ezjakintasunari beldurra izatea*. Aitonaren jakinduria eta gauzak azaltzeko patxada miresten ditut. Eskolan baino gehiago ikasten dut berarekin.

Egun askoren buruan...

Nahiz eta asteak igaro diren amona hil zenetik, aitona ez da lehengoa, ez du irribarrerik ezpainetan, eta ezta ilusiorik begietan ere. Lehen begiratuan beti bezala dagoela ematen du, baina nik ongi ezagutzen dut; badakit ez dagoela adierazi nahi duen bezain ongi. Triste dago. Ia ez da etxetik irteten, eta asko argaldu da. Astean birritan ama berarengana joaten da, etxeko lanekin laguntzera, eta ahal dudan guztietan berarekin joaten naiz, aitona pixka bat animatzeko. Gauza batek harritzen nau, ez dakit zergatik, baina, nahiz eta aitona bere aita izan, gure aita ez da inoiz hari laguntzera joaten. Ez etxeko lanak egitera, ezta bazkaria prestatzen laguntzera ere. Gauza bitxia, izan ere, langabezian dago, eta denbora asko du aitona laguntzeko, baina lan guztia amak egiten du, tabernara lanera joan baino lehen eta ondoren.

Etxean, Elurrekin jolasteko gogoak ere baretzen joan dira; baina batez ere, bera zaintzeko gogoak. Lurrek ez omen du astirik txakurra kalera ateratzeko, eta Anek ere gauzak omen ditu egiteko. Aitzakia merkeak. Elur jada ez da denek berarekin jostatu nahi duten txakurkumea, bere inguruan sortzen zen ilusio guztia galdu da. Etxeko guztientzat maskota maitagarria izatetik bizkarroi ziztrin bat izatera pasatu da denbora gutxian. Ni berriz, gero eta hobeto moldatzen naiz berarekin. Onartu beharra daukat hasieran ez zidala ilusio berezirik egin; baina, denboraren poderioz, nolabaiteko

adiskidetasun edo maitasun bat sortu da geure artean. Normala... azken finean, nik bakarrik egiten diot kasu.

Agur, aitona!

—Haurrok, etor zaitezte mesedez. Gauza bat kontatu behar dizuet —amak, tonu goibel batez—. Badakizue aitona maskal samar dabilela aspaldi honetan. Amonaren heriotzak pattaldu egin zuen, eta okerrera joan da. Horregatik aita eta biok aitona Donostiako ostatu batera eraman nahi dugu.

—Ostatu batera? —erantzun diot harrituta. Ez dut uste aitonarentzat gugandik urrun egotea aukera egokiena denik; baina ulertzen dut, izan ere, ez da gai bakarrik moldatzeko, eta amarentzat lan handia suposatzen du bera zaintzea—. Baina bera bisitatzera joan gaitezke, ezta?

—Bai, noski. Lasai, han ongi egongo da. Askatasun osoz ibiltzen jarraituko du eta, gainera, lanik egin gabe —erantzun dit irribarre faltsu batekin—. Goazen aitonaren bila.

Aitonaren etxea isil-isilik dago. Irratia itzalita, pertsianak jaitsita. Isiltasun tristea, beldurgarria. Mahaia argazkiz beteta, batzuk zaharrak, besteak orain dela gutxi ateratakoak, baina denetan amona agertzen da. Aitona haien aurrean dago, eskuak buruan eta begiak itxita. Amak besotik heldu eta etxetik ateratzen hasi zaionean, niri begiratu, besarkatu eta, begiak bete-bete eginda dituela, belarrira esan dit:

—Miserikordia batean sartuko naute. Agian ezin izango zaitut berriz ikusi. Adinduok trapu zaharrek baino gehiago eragozten dugula ematen du. Sentitzen dut. Gogoratu, beti maiteko zaitut.

Ez diot esan nahi zidana ulertu, baina, azken esaldi hori barru-barruraino iritsi zait: *Beti maiteko zaitut*.

Elur, non zaude?

Hamabi eta erdiak. Berandu da, gero! Atzo iratzargailua jartzea ahaztuko zitzaidan. Ez zait hain berandu jaikitzea gustatzen, nagikeria ekartzen dit. Orain ere gurasoak eztabaidan! Zer izango ote dute gaurko honetan? Sukaldean sartzeaz batera, biak isildu dira.

—Non dago Elur? —galdetu diet, esnea eta zerealak katilura bota bitartean. Izan ere, jaten ari garen

bakoitzean sukaldera etorri eta gure aurrean eserita jartzen da, soinu bitxiak eginez, guk jateko zerbait eman zain. Berak ere nahiago izaten du geure janaria, pentsu bola artifizial horiek baino.

—Txakur alu horrek ez dizkigu arazo gehiago sortuko. Bake ederra! Orain Aste Santuan oporretara joan gaitezke —bota du aitak, hotz.

Hotzikara batek gorputz osoa astindu dit. Ez da posible! Ez dakit zer egingo ote zion txakurrari; baina, aita ezagututa, bi aukera posible ikusten ditut. Lehenengoa, txakurtegi batera eramanez izana, eta bigarrena, makurrena... ez, ez luke horrelakorik egingo. Edo bai? Aita hotza da, bai, baina, gai izango al litzake Elurri bizia horrela kentzeko? Bai, ziur. Guztiz gorrotatzen dut.

Aita sentimendurik gabeko gizon horietako bat da, baina gehien harritzen edo mintzen nauena bere kuadrillan esan eta egin ohi dituen gauzak dira. Berengan desberdina den oro kritikatzeko du, bere ideiak dira onenak, eta beste pertsona guztiek berak baino gutxiago balio dute, eta animaliek, zer esanik ez. Txarrena da, ordea, bere lagun guztiek berdin jokatzen dutela, eta ez lagunek bakarrik, heldu gehienek ere horrelaxe jokatzen dute. Behinola, ni txiki-txikia nintzela, aita eta bere lagunekin nindoan, eta kofradiaren parean aurretik katu bat pasa zitzaigun. Titiak luzatuta zituen eta ihartuta zegoen, kumeek guztiz xurgatuta. Aitaren lagun batek ostiko bat eman zion, bete-betean, eta katuaren

oihua beldurgarria izan zen arren, lagun guztiak, aita barne, barrezka katuaren atzetik joan ziren beste ostiko bat eman nahian. Zer egin zien katuak? Ezer ere ez, baina berek katuaren sufrimenduarekin gozatzen ari zirela ematen zuen.

Nire pentsamenduetan murgilduta

Hilabete gutxian nire bizitza goitik behera aldatu da. Amona eta aitona galdu ditut, baita azken momentuan izugarri maitatu nuen txakurkumea ere. Ez dut aitona ikusteko aukerarik izan eramanez zutenetik. Ez omen gaitu ikusi nahi. Gezurra. Ez dakit nora eramango ote zuten, baina ez dut uste gurasoek dioten bezain ongi dagoenik. Aitonari buruzko berri guztiak gurasoengandik jasotzen ditut, eta hain zuzen, horrexek kezkatzen nau.

Inguratzen nauten gauza goibel guztiez nazkatuta, burutapen bat izan dut: gurasoak egia esatera behartzea eta benetan pentsatzen dudana esatea. Aitona non dagoen jakin nahi dut, baita Elur ere. Egia soilik eskatzen dut; baina, dirudienek, uste baino garestiagoa da. Animalienenganako tratuaz pentsatzen dudana ere mintzatu naitzaie. Ez dut haragi gehiago jan nahi. Hauxe izan da, ordea, aitaren erantzuna:

—Nork berotu ote dio burua ume honi? Ama! Isilarazi ezazu, behingoz! Txorakeriak besterik ez ditu esaten eta! Zer jakingo ote du ume alu honek bizitzaz!

Baserria

Ane Etxabe Usandizaga

Udazkena da eta, udazkenero lez, gaztainak daude lurrean. Hego haizea da nagusi eta hosto lehorrek musika lasaia eskaintzen dute adi dagoen edonorentzat. Ezer gutxi aldatzen da inoiz inguru hauetan; denbora oso mantso pasatzen da hemen, dena berdin. Hala ere, azken aldian guztia irauli da.

Geldialdiaren ondoren kotxean sartu eta abiatu naiz berriz. Burua dantzan dabilkit, azken aldian sarritan gertatzen zaidan moduan. Baserria bistaratu dudanean, ordea, nostalgia eta emozio olatuak hartu nau eta neure onera etorri naiz. Etxera noa.

Baserria bide ertzean dago, errepide lasaia da. Inguruetako baserritarrak besterik ez dira pasatzen; tarteka, mendizaleren bat. Txikitan jaiegun guztiak bertan pasatzen nituen. Amonarekin baratzean, aitonarekin ardi artean edo osabaren ondoan egurra pilatzen. Zoriontasunaren sinonimotzat nuen nik baserria. Ondoren, nerabezaroan lagunekin geratzeari eman nion lehentasuna eta denborarekin geroz eta gutxiago izan ziren baserriko egunak.

Duela hilabete batzuk itzuli nintzen berriz, kontzientziak hala aginduta. Bisita hartaz damutu ote naizen ere pentsatu izan dut azkenaldian.

Txakurrak zaunkaz eman dit ongietorria eta barrura sartu naiz. Sukaldean daude denak. Amonari muxu eman diot, irribarre batekin erantzun dit, baina bere begiek ez naute ezagutzen. Denbora da amona Maritxuk gurean bizitzeari utzi ziola.

Aitonak egunonak eman dizkit.

–Egun on, Nahikari! Nola asmatu duzu gaur zure laguntza behar genuela?

–Kaixo, aitona! Intuizioa izan da –erantzun diot begi keinu batez.

Osabak eta biek barre egin dute eta ogia eskaini didate, mahaian dagoen haragi egosia amaitzen laguntzeko.

Mahaiaren inguruan eseri orduko, salda bero katilua ekarri didate parera.

–Kaixo, Carolina! Zer moduz?

–Egun on, Nahikari! Ongi etorri! –ahots leuna dauka neskak–. Salda egin berria... tori.

–Eskerrik asko, Carolina! –irribarre alai bat egin diot, baina berak burua makurtu du. Urduri jarri naiz bat-batean eta nahiago izan dut aitona eta osabarekin hamaiketakoaz gozatu Carolinak amonari salda ahora eramaten dion bitartean.

Hamaiketakoaren ondoren aitona eta osaba desagertu egin dira. Lanean jarraituko dute, baserriaren inguruan, hor nonbait. Amona sukaldean geratu da, sukaldeko pareta zuriari begira. Berarekin geratu naiz, Carolina izara mordoa esku artean hartuta sartu den arte.

–Nire herrialdean edozein egunetan garbitu eta zabaldu daitezke maindireak, baina hemen ondo pentsatu behar da zein egun aukeratu. Gaurko hego haizearekin asmatu dut behintzat.

–Nahi duzu tolesten laguntzea?

Normalean ez du nahi izaten nik ezertan laguntzea. Argi du bera etxeko langilea dela eta ni bere nagusiaren biloba naizela. Hori oso argi uzten dit beti.

Ganbarara joan gara, hango eremu zabalean maindireak errazago tolesteko. Lehenengoa tolesterako gure eskuek topo egin dute eta nik begietara begiratu diot. Nire ezinegona ezkutatu nahi izan dut, segurtasuna eskaini nahi izan diot. Baina itxuraz, berak ere zerbait antzeman du nigan, nik bere beldurra ikusten dudana bezain garbi.

–Nahikari –esan du berekiko, supizio bat banintz bezala.

Ados, Carolina, pentsatu dut nirekiko, gaurkoan ez gaitezen erori, gaurkoa desberdina izango da.

Bigarren edo hirugarren maindirean, ordea, gure eskuek elkar topo egin dute berriro. Bere eskuen azal leuna antzematearekin batera bere ezpain mamitsuen musu goxoak etorri zaizkit gogora. Sua piztu zait barruan. Ezinezkoa izan zait desioaren uholdea gelditzea. Gainezka egin dugu.

Ordu batzuk beranduago bueltan noa berriz. Buruak zurrumbilo bat izaten jarraitzen du; baina, azken aldian gertatzen zaidan moduan, irribarre bat aurpegian dudala aldentzen naiz baserritik.

Katebegia

Alazne Arruti

Munduan bi motatako pertsonak daude. Animaliak gustuko ez dituzten animaliak, batetik, eta dinbilitanbala oinez ikasi orduko izaki bizidun ororengana ausart zuzentzen direnak, bestetik. Bera bigarren multzokoa dela berretsi dio amari enegarrenez, kafe irakin berria zurrupatu eta lurrinak aurpegia hezetzen dion bitartean. Familiako Whatsapp taldera bidali dituen zakurkume abandonatuen inguruan berriketan ari zaio. Txikitatik aditu du ez zuela beso errokillatsuak luzatu eta aurrean gurutzatutako sudur bustia atzeman arteko bakerik izaten. Eta hark, edozein izanda ere, xerra latzaz goitik behera blaitzen omen zuen berehala, baita lepondoa xurrupatu ere, buru lepomotza sorbaldaratu eta irrikaz ezker-eskuin astintzen hasten zen arte. Kimika kontua zela dio amak, bigarren kafe katilua mahairatuz.

Identifikatzen hasia da kimikak eragin ditzakeen zenbait sentipen. Baina bizitzaz zerbait ulertzen hasi nahi eta, ezer ez dela betiko ohartzen hasia da batez ere. Pertsonak aldatu egiten dira eta berekin, beren zakurrak. Bakoitzak bere eginbeharrak izaten ditu eta ez da azalpenik eman behar izaten. Nekez bila daiteke formula sinpleagorik. Lorategirik gabeko etxeren batean bizi den zakurra, akaso, ez dute pasieran aterako egunen batean. Hitzorduren batera berandu heltzear pentsua brastakoan bota eta ez diote kasurik egingo hurrena. Edo handiegia eta lerdetsuegia egingo da, eta orduak emango ditu ateari begira laztanak noiz itzuliko. Orduan larritu eta norbaiten arreta bereganatzeko gauza arraroak egiten hasiko da, etxean guztiak gogaitu arte. Eta, errieta aditzerakoan, burumakur, lepoa eskuinera biratu eta zeharka begiratuko du parean duena, dena jakin eta ezer ulertzen ez duenaren antzera. Edo agian, ez.

Nekez izango da zakur baten zaunka baino alarma hoberik baserrietan. Kanpoaldeko etxoletan katetik lotu ohi dira, baina etxerako bidea ikasi bezain pronto askatzen. Jaten ematen duen eskua kostata ahazten baita. Ezin ahaztu dezake Gorri, lehen pau-soetatik alboan izan zuen bakarra. Etxeko zaharra. Argia eta argala. Bere kilo eskasaz bi hankatan

tentetu eta garajeko atearen manila metalikoa ezkerreko hankaz zanpatzen ikasi zuena. Ekintza miragarria egin ostean, atera hurbildu eta ogi zaharra jaten topatzen zueneko kriski-kraska aditu dezake oraindik. Txundigarria zitzaion, erabat, atea zabaltzen zituen naturaz gaindiko zakur bat. Harritu egin da, zakur hark utzi zuenetik hamar bat urte igaro direla jakitean. Amak ere uste baino urrunago sumatu du sekula inor galdu ez zuen neskatoaren samina.

Ordutik aurrera hasi zen guztia korapilatzen. Gorriren hutsunea Txispak ordezkatu behar zuen, baina lehen egunetan katea eten eta auto bati jarraika egin zuen ihes. Inguruko herriak haren argazkiz josiagatik ez zuten sekula topatu. Osaba-izebek ekarri zuten Bull-ek berriz, garrantzirik gabeko ustekabe batzuen ostean, lurrera jaurti eta han mantendu zuen indarrez behin izan zen neskato leka-makil hura, buru gaina azazkal gogorrez odoltzeraino. *Jakin ezazue zakur horrek nahi izan balu, zuen alabaren burua bitan bana zezakeela...* aditu zuen larrialdietan konortea galtzear. Eta orduan etorri zen hutsunea. Zakurrekiko mesfidantza eta nahigabea. Eta nagusitu zen erruduntasuna, zakurra azalpenik gabe desagertu zenean.

Kafetan guztiz urtu gabeko txokolatezko gailera irentsi, atzamarrak zupatu eta paketetik beste bat luzatu dio amari, pasarte hura erabat ahaztua zuela aitortuz. Eta honek, gerrialdeari muzin egin eta aurrez sekula jaso gabeko esker ona dastatzeari ekin dio. Berea izan zen Kay ekartzeko erabakia. Traumei aurre egiteko beldurrak gaindiaz zizkion alabari. Eta akabo, zesto barruan eta lazo gorri batez apainduta begira zuten mastin zuriaren samurtasunera errenditu behar izan zuten oster, atzera bueltarik gabe.

Barre artean eta harrikoz gainezka den harraskan jarraitu dute. Ontzi garbigailuari atsedean emanaz, bata ontziak garbitu eta besteak lehortuz. Katebegi sendo batean elkarlotuta. Aspaldian ez zuten horren luze elkarrekin hitz egiteko aukerarik izan. Ohi baino pentsakorrago nabari da ama. Eta poz hau, kimika kontua ote den asmatu nahian dabilta biak.

Marearen kontra igerian

Mikel Iruretagoiena

1

Denbora pasa berdel arrantzan
baldea ondo berdindu,
eta barrarantz zuzendu nintzen
egunsentia testigu,
baina portura sartu orduko,
Pare usted, señor agindu,
kantari hasi nintzen barrutik:
Ia guriak egin du.

2

Pantalanean lotu txikota,
aurrean Guardia Zibila,
betiko legez benemerita
bere merituen bila,
erakusteko lizentzi denak
sekulako paper pila,
haiei begira egin genuen
egundoko katramila.

3

Paper haiekin bukatzerako,
Revisemos la bengala,
trastu artean haien peskizan
hasi nintzen berehala.
Kadukaturik omen zeudela,
erantzun nion: *Aibala!*
Sumatu nuen ezpain haietan
irribarre bat, zitala.

4

Bengala gora, bengala behera,
estutu nahian zepoa,
asmo makurrez ontzi barrura
okertu zuen lepoa,
ateratzeko, baldin banuen,
segurtasun txalekoa,
baina hau ere emanagatik
ez zuen izan nahikoa.

5

Begi maltzurrez ikusi zuen
nire txaluparen masta,
puntan bandera falta zuela
eta ez zela pirata,
seiehun euro zirela multa
ezin zitekeela barka,
bandera bertan jarri ezean
jasoko nuela zarta.

6

Atera nion piperpotoa
berri-berria, galako,
ondo gordeta neukala mastan
ajatu egingo zelako.
Derrepentean jartzeko hantxe:
Ponlo arriba, bien alto!
Niri begira Guardia Zibila
ez zegoen txantxarako.

7

Bandera jarri, multa ordaindu,
horra betiko zalantza,
zein aldetara erori behar
une horretan balantza.
Nire artean pentsatu nuen:
motel, ez haiz aberatsa...
bandera bertan jarri ta kito,
hura momentu garratza!

8

Azken bertso bat, entzule maite,
bota baino lehen bronka,
ezin daiteke egin igeri
beti marearen kontra,
makinatxo bat egonak dira
eta luzea da soka,
itxaferoak balkoitik botaz
rojiguldari txaloka.

Doinua:

Komeni zaigun ixtoria bat

Badira

Iona Rekarte

Gure artean badira:

Amak eta aitak sortuak,
maitasunetik.

Parranda latz batean sortuak,
deskuiduz.

Amak bakarrik sortuak,
klinikan.

Edo bortxakerien ondorioz sortuak,
minean.

Gure artean badira:

Batak bestearentzat sortuak,
trukean.

Jainkoaren nahitik sortuak,
seigarren, zazpigarren eta zortzigarren senideak, adibidez.

Bikotea putzu-zulotik ateratzeko sortu direnak ere badira,
alferrik.

Hildako anaiaren hutsunea betetzeko sortuak,
lehenbailehen.

Desiratutako alaba izateko sortuak,
seme jaio arren,
eta desiratutako semea izateko sortuak,
alaba jaio arren.

Badira ere gure artean, familia normal bat osatzeko nahitik sortuak direnak,
alabaina errebelde eta bereziak jaio izan direnak.

Baita pentsatu gabe “etortzen” diren horiek ere,
gizakion espezieak bizi-irauteko duen inertziaz...

Argia

Rosi Lazkano

1
Hirurogeigarrena
bete berri-berri,
zer langa izango den
pentsatzen naiz jarri.
Sasoitik hainbestean,
ez estu, ez larri,
joan den hamarkadak
nahiz asko ekarri,
hasi berri dena ere,
zer erakargarri!

2
Ez da izango, noski,
den-dena hain ona,
baina azaldu nahi dut
oraintxe dagona.
Tripa barrutik deika
eta ez da broma,
berehalaxe egin
behar nau amona,
eta nik sentitzen dut
kriston zoriona!

3
Ekogرافiatxo bat-bat
eskura, opari,
geroztikan begira
egoten naiz hari.
Lehengo oroitzapenak
datozkit ugari,
ez nuen bistaratzen
hain zena nabari,
ezta ere kantatzen
haurdunaldiari.

4
Aspaldi jaio ziren
alaba-semeak,
baina berritu zaizkit
ordungo uneak.
Aldaketak ez dira
izaten xumeak,
betebehar zailenak
amak ta umeak,
nik bete nahi nituzke
beste hutsuneak.

5
Tokatu zaizu nahiko
amona berritsu,
biloba kontuetan
ez dena jakintsu,
sentipenetan sartzen
dena itsu-itsu,
Mari Errauzkin, Pinotxo
o Txanogorritxu...
gaztetan ameslari,
gaur ere berdintsu.

6
Bereizketa zorrotza
egina dut nahita,
ederki nabarmenduz
nork daraman tripa.
Nire papera ere
aipa eta aipa,
baina erdi bat bezain
erdi beste baita,
taldekide ditugu
aitona ta aita.

7
Gorde ezin den poza
ez da ausardia,
bihurtu zara gure
denaren erdia.
Monotoniarentzat
a, zer pikardia!
Aurrena izateak
duen alderdia...
ametsetan ipini
gaituzu, Argia!

*Doinua:
Lagundurikan danoi*

Aurten bai

Garazi Urretabizkaia

1

Hogeita hamar urte ditut
ta ez naiz itxurosoa,
bat hirurogeita zazpi,
dirudit arkakusoa!
Ehun ta bi kiloren bueltan
enbor boluptuoso...
Baina amets bat darabilt
buruan bueltan jaso.
Aurten bai, aurten baika
nabil bizitza osoa,
ta oraingoan benetan
luzatuko dut pauso;
bebingoan bihurtuko naiz
lotsaren intsumisoa.

2

Txikitatik izan nintzen
iseka denen diana,
eskolako patioan
beldurrez urtzen zen flana.
Autoestima gabeko
mutil kottadu otzana...
Zergarik gabe pasatzen
zuten burlek aduana.
Ene ametsak zapuzten
joan ziren banan bana,
besteen esku utziaz
nire bizitzaren plana,
baina eguna heldu da:
gaur aldatuko da dana.

3

Gizarteak bihurtu nau
artaldearen partaide,
desberdin pentsatzeko ere
aukerarik utzi gabe.
Beti besteen peskizan,
beti besteen mirabe,
ene izate osoa
saldua dut oharkabe.
Jokatu ta pentsatzen dut
automata baten pare,
besteen nahiak, onurak...
priorizatuz debalde!
Behingoz bilakatu nahi dut
nire buruaren jabe!

4

Bi aldiz pentsatu gabe
noa pistinan barrena,
gero pesak ta korrika,
nahiz izan nahiko errena.
Guzti honetan nabilela
buruan dut zoramena,
ingurukoentzat bainaiz
erreferente zuzena:
herrigintzan aktiboa,
kuadrillan pailazoena,
HBko manifestan
pankarta heltzen lehena...
Ez didate barkatuko
egitera noan dena.

5

Kilo batzuk galdu ditut,
eguna iritsi da ia,
ta Bilbo aldera martxan
ipini dut nire KIA.
Askok ez du ulertuko
gaur nire erabakia,
baina harrotasun osoz
utziko dut lubakia.
Azterketa hartua dut,
badut ja zenbakia;
mahaian eseri eta
aurreratu dut aulkia:
Ertzaintza oposiciones...
Has dadila antzerkia!

Doinua:

ETAren suetenetik

Mundua zapi bat balitz

Alazne Arruti

Zapi batean sartuko nuke
bizi dugun mundu hau.
Zabaldu eta
harea-koskor baten eran
galduko nintzateke
neurri gabeko pilaketari ekiteko.

Norabideak osatzen badu bidea,
helmugak ez du soilik naizena osatzen.
Harria naiz,
harea pila lekukotzen den aldiro.

Ez da hiririk
jenderik gabe.
Ez da gizatasunik
pertsonarik gabe.
Edonon eta uste baino errazago
osa daiteke familia berri bat,
distantziak etengabe
labanak zorrozten dituen bitartean.

Agur gehiagorik jasateko gai ez den
hutsune hori neure-neurea denez,
mundua zapi bilakatuko nuke.
Toles soil batean
faltan sumatzen dudan oro
ostera bueltan bisitatzeko.

Norabideak osatzen badu bidea,
emadazue
sekula ahantziko ez ditudan bizipenak
Ipar dituen ardatza.

